

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2024ko urria

Euskal AEko landa-ostatueta sarreraren kopurua % 3,9 igo da 2024ko urrian, eta apartamentu turistikoetako % 29,2

Aterpetxe turistikoetan, bestalde, sarrerak % 11,4 gehitu dira

Eustaten datuen arabera, **2024ko urrian**, Euskal AEko **landa-ostatueta** sarrerak % 3,9 gehitu eta gualdiak % 6,4 jaitsi ziren, aurreko urteko hil beraren aldean. Urte arteko aldakuntza horiekin, 15.567 sarrera eta 31.710 gualdi izan dira.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Urria 2024

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2024/10	m/m-12 (%)	2024/10	m/m-12 (%)	2024/10	2023/10	2024/10	p.p. *	2024/10	p.p. *
EUSKAL AE	15.567	3,9	31.710	-6,4	2,04	2,26	23,5	-1,4	28,7	-0,5
Estatukoak	11.597	1,5	22.934	-13,1	1,98	2,31	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.970	11,8	8.776	17,5	2,21	2,10	-	-	-	-
Araba/Álava	3.578	18,3	7.056	6,6	1,97	2,19	20,7	1,4	26,1	4,5
Estatukoak	3.188	27,8	6.014	7,8	1,89	2,24	-	-	-	-
Atzeritarrak	390	-26,3	1.042	0,3	2,67	1,96	-	-	-	-
Bizkaia	4.658	0,5	9.734	-3,7	2,09	2,18	25,4	0,2	30,6	0,3
Estatukoak	3.201	-10,9	6.588	-15,4	2,06	2,17	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.457	39,6	3.146	35,4	2,16	2,23	-	-	-	-
Gipuzkoa	7.331	0,2	14.920	-12,9	2,04	2,34	23,8	-4,0	28,8	-3,9
Estatukoak	5.208	-2,5	10.332	-20,7	1,98	2,44	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.123	7,3	4.588	11,8	2,16	2,08	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hila berarekin portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hila berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Azaroaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Aurreko urteko urriaren aldean, 2024ko urrian % 11,8ko hazkundera izan zen atzerriko sarrerei dagokionez; horrela, Euskal AEko landa-ostatueta ekoizitako sarrera guztien % 25,5 izan ziren. Ostatu-gauen kasuan, bestalde, atzeritar jatorrikoak guztizkoaren % 27,7 dira, 2023ko urriaren aldean % 17,5 igo ondoren.

Lurralde historikoen arabera, Araban sarrerak % 18,3 gehitu dira, Bizkaian % 0,5 eta Gipuzkoan % 0,2. Ostatu-gauetako dagokionez, Araban urte artean % 6,6 igo dira, eta Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, % 12,9 eta % 3,7 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko establezimendu mota horretako batez besteko egonaldia 2,04 egunekoa izan da 2024ko urrian, aurreko urteko hil berean izandako 2,26 eguneko batez besteko egonaldiaren azpitik. Batez besteko egonaldia bidaiariak gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean batez beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn egiten duten egonaldiaren guztizko iraupenari.

Plazen okupazio maila ehuneko 1,4 puntu jaitsi da 2023ko urrian lortutakoaren aldean, % 23,5ean kokatuz. Gelakako okupazioak urte arteko jaitsiera txiki bat izan du, ehuneko puntu erdikoa, eta azken hilabete honetan % 28,7koa izan da.

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2024ko urrian 19.095 sarrera erregistratu dira, eta 62.711 gaualdi izan dira. Datu horiek aurreko urteko urriko datuekin alderatuta, igoera % 29,2koa izan da sarreraren kasuan eta % 18,4koa gaualdien kasuan.

Apartamentu turistiko esaten zaio blokearen edo multzoaren modalitatean kudeatzen duen ustiapeneko enpresa-unitate baten pean eskaintzen den ostatu-unitate bakoitzari. **Ez dira epigrafe honetan sartzen turismo-erabilerako etxebizitzak**, arrazoi turistikoengatik aldi baterako eskaintzen, merkaturatzen edo lagatzen diren etxebizitza partikularrak.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Urria 2024

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamenduka	
	2024/10	m/m-12 (%)	2024/10	m/m-12 (%)	2024/10	2023/10	2024/10	p.p. *	2024/10	p.p. *
EUSKAL AE	19.095	29,2	62.711	18,4	3,28	3,58	38,2	2,6	68,9	6,1
Estatukoak	11.021	18,3	35.896	11,5	3,26	3,46	-	-	-	-
Atzerriarrak	8.074	47,9	26.815	29,3	3,32	3,80	-	-	-	-
Araba/Álava	1.075	-7,2	9.123	8,0	8,48	7,30	27,5	2,1	77,6	11,0
Estatukoak	962	-1,8	6.157	3,4	6,40	6,08	-	-	-	-
Atzerriarrak	114	-36,5	2.966	19,0	26,09	13,94	-	-	-	-
Bizkaia	13.382	37,4	30.195	34,4	2,26	2,31	40,7	5,8	56,6	9,2
Estatukoak	7.637	26,9	16.054	28,2	2,10	2,08	-	-	-	-
Atzerriarrak	5.745	54,2	14.141	42,1	2,46	2,67	-	-	-	-
Gipuzkoa	4.637	19,7	23.392	6,2	5,04	5,68	41,2	-2,1	78,6	2,4
Estatukoak	2.422	4,3	13.685	-0,3	5,65	5,91	-	-	-	-
Atzerriarrak	2.215	42,6	9.708	17,0	4,38	5,34	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Azaroaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera guztien % 42,3 eta gaualdi guztien % 42,8 atzerriko bisitariei dagokie, urrian urte arteko % 47,9ko eta % 29,3ko igoerak izan ondoren, hurrenez hurren.

Apartamentu turistikoetako batez besteko egonaldia 3,28 egunekoa izan da 2024ko urrian, hau da, 2023ko urrian lortutakoa (3,58 egun Euskal AE osoan) baino txikiagoa. Araban mota horretako establezimenduetako batez besteko egonaldia 8,48 egunekoa izan da, Gipuzkoan 5,04 egunekoa eta Bizkaian 2,26 egunekoa.

Plazen okupazio maila % 38,2ra iritsi da Euskal AE osoan azken hilabete honetan, hau da, ehuneko 2,6 puntu gehiago 2023ko urrian baino. Apartamentu bakoitzeko okupazio-maila, berriz, ehuneko 6,1 puntu igo da, eta % 68,9an kokatu da.

Euskal AEko **Aterpetxe turistikoei** dagokienez, 2024ko urrian % 11,4ko urte arteko igoera izan da sarreretan, 22.464 sarrerarekin, eta 36.745 gaualdi sortu dira. Bizkaian 20.255 gaualdi izan dira, Gipuzkoan 15.548 eta, azkenik, Araban 941 ostatu-mota horietan.

Euskal AEko aterpetxe turistikoetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Urria 2024

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-maila plazaka (%)	
	2024/10	m/m-12 (%)	2024/10	m/m-12 (%)	2024/10	2023/10	2024/10	p.p.
EUSKAL AE	22.464	11,4	36.745	2,2	1,64	1,78	34,7	-1,6
Estatukoak	8.647	7,7	13.622	1,2	1,58	1,68	-	-
Atzeritarrak	13.817	13,9	23.123	2,9	1,67	1,85	-	-
Araba/Álava	632	-34,7	941	-29,7	1,49	1,38	22,8	-4,2
Estatukoak	612	-28,4	921	-23,0	1,51	1,40	-	-
Atzeritarrak	20	-82,2	20	-85,9	1,00	1,26	-	-
Bizkaia	11.978	1,0	20.255	-4,5	1,69	1,79	37,5	-2,1
Estatukoak	4.253	-13,4	6.756	-22,0	1,59	1,76	-	-
Atzeritarrak	7.726	11,3	13.500	7,5	1,75	1,81	-	-
Gipuzkoa	9.854	34,2	15.548	16,1	1,58	1,82	32,4	-0,4
Estatukoak	3.783	67,0	5.946	64,8	1,57	1,59	-	-
Atzeritarrak	6.071	19,5	9.603	-1,8	1,58	1,93	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteaz izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Azaroaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko Aterpetxe turistikoetako egonaldiaren batez besteko iraupena, 2024ko urrian, 1,64 egunekoa izan da. Plazen okupazio maila, azkenik, % 34,7an kokatu da, urte arteko 1,6 puntuko jaitsieraren ondoren.

Informazio-oharra

ETHren erantzun-tasa % **92,8koa** izan da hilabete honetan landa-ostatueta, % **83,9koa** Apartamentu turistikoetan eta % **79,8koa** Aterpetxe turistikoetan. Eustatek egindako ahalegina eskertu die inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: Tlf: 945 01 75 62